

Ale honetan

Aurkezpena 1

Bestelako lankidetzak

Jose Frantzizko Zinkunegi

Mugak gaindituz: Euskara urrutitik ikasi 3

Ikerketak

Josu Perales

Gainbegirada bat Cloze-testei 48

Joseba Ezeiza

Ikasle hasiberriei euskara irakasteko materialak (II): kontzien-
tzia, autonomia, eta benetakotasuna ikusmiran” 65

Beste iturrietatik

Jeniffer Summerville

Sareko “Jokabide-kodea” garatzen 84

Egileak eta izenburuak 91

HIZPIDE

EUSKALDUNTZE - ALFABETATZEAREN ALDIZKARIA

HARPIDETZA-ORRIA



Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Herria eta Pk:

Probintzia:

**Hizpide aldizkaria jaso nahi dut etxean. 2006an hiru ale:
12,60 €. Honela ordainduko dut:**

N.A.N.:

☐ Kontu korronte bidez


Bankua edo Aurrezki-Kutxa:

Sukurtsala:

Zenbakia:

☐ Transferentziaz (Kutxa 2101.0381.01.0003069002)

☐ HABEren izenean luzaturiko txkekez



**Helbide honetara bidali behar da:
hizpide aldizkaria
Vitoria-Gasteiz, 3
20018 Donostia**

Formulario honetako datuak fitxategi automatizatu batean bilduko dira, HABEk aldizkaria jasotzeko eskabideak kudeatu ahal izateko. Fitxategi datuetara sartzeko, datuak aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, HABEra jo dezakezue. Vitoria-Gasteiz kalea, 3-6. 20018 Donostia.



Aurkezpena

Bestelako lankidetzak.— “Mugak gaindituz. Euskara urrutitik ikasi”. Horra, José Franzisko Zinkunegi “Kinku”-k idatzi duen artikulua izenburua. Begien bistakoa da teknologia berriek duten abiadura itzela. Internet, haren inguruko aurrerapenak eta horiek euskara irakasteari zein ekarpen egiten dioten behin baino gehiagotan ekarri ditugu orrialde hauetara. Jakin arazi dugu, halaber, Euskal Diasporaren berri. Ezagutzen ditugu Txilen, Estatu Batuetan, Paraguain, Argentinan... euskara ikasteko egiten ari diren ahaleginak. Oraingoan, bi alderdi horiek uztarturik datoz Artikulugilearen eskutik. Hamasei urte iragan dira “Euskara Munduan” programa abian jarri zenetik. Horren baitan “Argentinan Euskaraz” egitasmoa ere martxan jarri zen. Helburu nagusia da euskarazko eskolak emateko baliabideak garatzea. Apurka-apurka egitura bat sortu da eta tokian tokiko lehenengo euskara-irakasleak ari dira jadanik eskoletan, Euskal Etxeetan. Baina, Argentinan bertan ere kilometroak oztopo, eta, eskaria eskaintza baino handiagoa izaki bide berriak urratzeari ekin diote teknologiak ematen dituen aukerak baliatuz. Eta, “urrutitik” ere ari dira orain euskara ikasten Argentinan, teknologia lagun. Artikulu honetan, gero eta ikasle gehiago dituen programaren zer-nolakoak xeheki azalduko dizkigu artikulugileak.

Ikerketak.— Hurrengo artikulua “Gainbegirada bat Cloze-testei” du izenburu eta Josu Peralesen eskutik datorkigu. Aski ezaguna da euskalduntze-alfabetatzearen alorrean Cloze-prozedura. Burutze-proba edo burutze-ariketa izenak ere erabiltzen dira test horiek izendatzeko. Cloze-prozedurak baditu hainbat aldaera eta horietako bat da gurean gehien erabiltzen dena: aukera anitzeko Cloze-proba. EAEko administrazioa langileei begirako hizkuntz eskakizunetan, esaterako, horixe erabiltzen da irakurmena ebaluatzen. Cloze-testak proba integratiboak dira, erredundantzia murriztekoak. Artikulu honetan gainbegirada egingo diegu, horien nondik norako nagusiak aztertuz.

Hurrengo artikulua izenburua da “Ikasle hasiberriei euskara irakaste materialak (II): kontzientzia, autonomia, eta benetakotasuna ikusmiran”. Joseba Ezeiza EHUKo eta Legazpi 6 euskaltegiko irakaslearen eskutik datorkigu. Aurreko lanaren ildotik, artikulu honetan ikasle hasiberrientzat azken urteotan argitaratutako hiru ikasmaterial aztertu ditu. Oraingo honetan, material hauen proposamenek baliatzen dituzten ikas-kuntza-ereduei begiratu die. Lehenbizi, materialok eskaintzen dituzten programen jomugak, egitura eta lehentasunak aztertu ditugu. Ondoren, begiratu die ea zein diren materialok sustatzen dituzten adimen-operazioak. Azkenik, ikaskuntza laguntzeko sortzen dituzten baldintzak xeha-

tu ditugu. Egiaztatu ahal izan dugunez, alde handiak daude aztertutako materialek proposatzen dituzten ikas-ereduen artean. Alde handiak ikusi ditugu, halaber, HEOKak aldarrikatzen dituen irizpideen eta material hauetako batzuek baliatzen dituztenen artean.

Beste iturrietatik.– “Sareko ‘Jokabide-kodea’ garatzen” dugu hurrengo artikulua. Gero eta zabalagoa da munduan barrena Internet bidezko ikas-taroen eskaintza. Posta elektronikoa ere tresna arrunta da jadanik ikasle askorentzat. Eta Interneteko forumak, eta, txatak aisialdirako ez ezik ikasteko ere dira lanabes baliosak. Badago kontzeptu bat, “nettiquette”, frantseseko “etiquete” (heziketa ona) eta ingelesko “net” (sare) hitzetatik etorria. Jeniffer Summerville artikulugilea Wilmington-en ari da irakasle North Carolina-ko unibertsitatean. Eta artikulua honetan Internet bidezko ikastaldi batean ikasleek nola jardun behar duten adierazten du. Testuinguruak testuinguru, merezi du hari erreparatzea eta kontuan hartzea.

Azkenik, ohi bezala, urtean argitara emandako artikulua egileka sailkatuta eskaintzen zaizue.

Horixe da, horrenbestez, 63. alearen mamia. Hizpidek probetxuzkoa izan dakizula opa dizu.